AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6142

AGINDUA, 2011ko azaroaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Arabako Ikuskaritzako lurralde buruaren lanpostua izendapen askeko sistemaz betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.d) artikuluan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaz betetzeko deialdia iragartzen duen sail horretako sailburuaren 2011ko irailaren 13ko Aginduaren laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (2011ko irailaren 28ko EHAA), honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– José Ignacio Molinuevo Cueva jauna Arabako Ikuskaritzako lurralde buru izendatzea.

Bigarrena.– Izendapenak agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoan izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtsook aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 14a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.